

SENIDEAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA

-Lanpostua erreserbatzea-

Gaur egun arte, Sailak Justizia Administrazioako langileoi urtebeterako besterik ez zigun erreserbatzen lanpostua, seme-alabak edota beste senideren bat zaintzeko eszedentzia hartuz gero. Egoera bidegabe hori zuzenduta geratuta da behingoz, BJLOren azken aldaketaren bitartez.

Harrez geroztik, JAZ behartuta dago erreserba hori gutxienez bi urtera arte luzatzeko. Dirudienez, aztertzen ari dira noiztik hasi araua aplikatzen.

Hori dela-eta, legea lehenengo egunetik ezartzeko exijitzen dugu; hots, BJLOren aldaketa indarrean sartu den egunetik (urriak 1).

Lege kontrakoa izango litzateke aldaketa onartzea aurtengo urriaren 1etik aurrera eskatuko dutenei bakarrik; horrela balitz, arauak argi eta garbi esango zukeen eta.

Gauzak horrela, 2015eko urriaren 1ean eszedentzian dagoen langileak (seme-alabak zein beste senideren bat direla-eta) lanpostua erreserbatu izango du gutxienez bi urtez, eszedentzia hasi zuen egunetik hasita.

Zuei bezala, Jon Uriarte Justizia Administrazioako Zuzendariari ere bidali diogu ohar hau.

Era berean, gogorarazi diogu bilera egin behar dugula eskubide batzuk (lizentziak, baimenak, aparteko lansaria) lehengoratzea izapide hartuta. Jakina, esan diogu justizian berezitasunak dauzkagula, BJLOn jasoak. Bide batez, lehenengo egunean kontu horiekin bidali genizuen informazio orria ere igorri diogu.

2015-10-06
